

## **EZ NAIZ ZURE PRINTZESA**

Anne Lapeira Mendizabal

*Azpeitia*

Kakatzaaarra! Oporretan lan egin behar... Hori da tratua. Unibertsitateko matrikula, eta urte osorako etxearen alokairua, gurasoen kontura. Eta gainontzekoa, sakelerakoa alegia, nire gain. Izorra hadi! Dena den, akordioa ez da hain txarra izan, elkarrizketa eteteko zorian egon baita amak –"Maren, etxerako autobusa egunero daukazu" –esan didanean.

Marenek ordulariari begiratu dio, eskuan duen kafesnari putz egiten dion bitartean, urduritasunagatik kafesnearen berotasunagatik bainoago. Bershka arropa dendaren aurreko tabernaren terrazan dago, larunbat goizez jasotako dei bati jaramon eginez.

–"Sarri amestu dut, uharte batekin, sarri nahi izan dut bertara alde egin ..."

–Bai?

–Maren Ugarte?

–Bai, neu naiz.

–Bershka arropa dendatik deitzen dizut. Maite Ugalde naiz, pertsonal-arduraduna. Esku artean

dut lanerako zure eskaera orria. Jakin nahi nuke ea astelehenetik aurrera lanean has zintezkeen. Egia esan, lanez lepoz gain gabiltza, eta ezingo bazenu beste neska batekin hitz egin beharko genuke.

Lehen egunean lantokian bi neska ezagutu nituen. Mara eta Elene. Biak ala biak oso ondo portatu ziren nirekin. Lehen egunean lanaren nondik-norakoa irakasten ahalegindu ziren. Laguntzaile gisa arituko nintzela, eta ikasi ahala bezeroekin hasiko nintzela poliki-poliki.

Asteak aurrera egin zuten, eta iada jarria nengoen lan hartara. Uztaila haserako egun euritsua. Goiz gutia ondoezik neraman, eta arratsaldean sukar pixka bat nabaritu nuen. Etxera joateko ordua laster zenez, lanordua bukatzea erabaki nuen.

Azken unean, ordea, Mara eta Elene kamisetak apaletan jartzen lagunduko nien galdetzeraz etorri ziren. Aurrean nuen kamisetan “EZ NAIZ ZURE PRINTZESA” jartzen zuen urrezko letretan. Printzesa bat ez, baina batzuetan polita ikusten nuen neure burua. Baina egun hartan printzesa baino munstroago sentitzen nintzen.

Kamisetekin amaitu, eta biltegitik praka piloa nenkarrela eskaileran goraka, burua biraka hasi zitzaidan. Ez nuen ongi ikusten, arnasa faltatzen hasi zitzaidan. Eskuetakoa askatu, eta aurrean nuen mahaiari eutsi nion.

–Zer gertatzen zaizu? –gerritik heldu zidan ordu-ra arte ezezaguna zitzaidan Dennisek, dendako nagusiaren semeak. Ez zuen langile itxurarik, baina halako begi ederrak zituen...

Eguna larrialdietan bukatu nuen. Asma atakea. Bost bat eguneko “baja” hartu eta zaintzeko neure burua agindu zidan medikuak. Dennisek itzuli ninduen etxera. Kotxetik irtetea, eskerrak eman nizekion.

–Tss, lasai... – eskutik heldu eta irribarre batekin alde egin zuen.

Astea azkar igaro zen. Sukarra bigarren egunerako desagertu egin zitzaidan, eta ondorengoak opor txiki batzuk izan ziren. Eskerrak egun haietan eguraldia goibel ibili zela, bestela nire lagun guziak hondartzan, eta ni etxean egon behar nuela pentsatzeak...

Lanera itzuli nintzen egunean, gauzak apur bat aldatu zirela ohartu nintzen. Dennisek desberdin begiratzen zidan. Eta aldi berean, edo agian horregatik, Elene ere beste era batera begiratzen hasi zitzaidan. Ez zidan aurreneko egunetako berotasunez hitz egiten.

–Maren, kafetxo bat hartuko dugu lana bukatzean? –galdetu zidan Dennisek arratsalde hartan.

–Ez, ezin dut.

–Banekien –ezezkoa onartzen ez dakien tonuaz –Zergatik ez duzu nahi? Nagusiaren semea naizelako?

–Zergatik esaten duzu hori? Ez du zerikusirik.

–Ziur?

–Bai. Jakin nahi baduzu, lagunekin afari bat dut gaur –burura etorri zitzaidan lehen gezurra bota nion.

–Eta bihar arratsaldez? –aproban jarri nahian.

Ez nekien zer erantzun. Han zegoen nire aurrean, bere ile kizkur eta begi urdin eder haiekin. Begiratzen zidanean... Aii!! Gustoko nuen, ezin ukatu.

–Bale, ondo da.

Zeharo gustura jarri zen. Ume txikiek berek nahi dutena lortzen dutenean bezala.

–Bila joango naiz zure etxera bostetan.

Buruarekin baietz esan, eta lanean jarraitu nuen.

–Kakazaaaaarra! Maren, tuntuna zara! Zer-nolako saltsatan sartu zaren –pentsatzen nuen neurekiko.

Berandu nenbilen. Pare bat soineko probatu nituen, baina ez nintzen gustura sentitzen. Ez nuen nahi preparatuegi, ezta motz gelditzea ere. Azkenean, betiko bakeroak, erosi berri nuen kamiseta, sudadera arrosa eta neure hawaiiana zuriarekin atera nintzen. Ilea goma batean jasota.

Bostak hamar gutxi ziren, etxetik atera nintzenean. Han zegoen bere autoaren barruan leihoa irekita eta musika entzuten. Hondartzako kafetegi batera joan ginen. Eta ondoren paseotxo bat malekoitik. Dena oso atsegina. Iluntze aldera neure etxe aurrean utzi ninduen.

–Oso arratsalde atsegina pasa dut zure ondoan.

–Ah, bai? –erantzun nion irribarre batekin.

–Zeharo polita zara –gero eta gehiago hurbiltzen hasi zitzaidan.

Ai ama! Zer egingo dut? Eta burua jaitsi nuen.

–Barka, Dennis... ez gaizki hartu, baina ez gara ia ezagutzen.

–Bai, arrazoi duzu. Beste egun batean afaltzera irten gaitezke hobeto ezagutzeko.

–Ongi da –eta irribarre batekin agur egin nion.

Aste hartan pare bat aldiz gehiago elkarrekin atera ginen. Dennisek halako batean, ezertara ez zetorrela, gurea inork ezin zuela jakin esan zidan. Gaizki zegoela nagusia eta langilea bikotea izatea. Egia esan, ez zitzaidan batere gustatu; baina onartu egin nuen. Azkarregi nindoan, eta apur bat kontrolik gabe. Iruditzen zitzaidan ez nintzela ondo jokutzen ari. Eta hartaz balia ninteke, berriro neure buru eta bihotza kontrolpean izateko.

Larunbata zen eta Dennisek ordu biak arte zuen lana. Nire plana bere etxe aurrean zain egotea zen. Ustekabean bazkaltzera gonbitea egin eta berarekin arratsalde berezi bat igarotzea.

Egun eguzkitsua zen. Han nengoen bere etxe aurreko bankuan eserita, nire soineko berriarekin, urduri. Bat-batean Dennis ikusi nuen autoan, barrez. Atetik ateraz bat, neroni ere bankutik altxatu nintzen. Ez zetorren bakarrik, ordea. Kopilotoaren atera zuzendu zen, eta atea ireki zue-nean... Ez zen posible! Bihotzaren taupadak erotu egin zitzaizkidan. Han zegoen Dennis pozik, irribarretsu. Niri zuzentzen zidan irribarre faltsu berbarekin; eta Eleneri eskutik helduta, atetik irtenen lagundu zion.

Nik zerbait esatea nahi nuen, deiadar egin, garraisi, baina mutu geratu nintzen, indarge. Indarra nondik-bait bildu, eta azken aldiz begiratzera ausartu nintzenean, etxera nola sartzen ziren ikusi nituen.

Hurrengo bizpairu egunak gogorak izan ziren. Dennisek pare bat aldiz deitu zidan, baina berak ez zuen nire erantzunik jaso. Dennisen jokaerak ez zidan horrenbat min eragin, nire jokaera baldar eta traketsak baino. Eta hala, gehiago ez endredatzearren, lanean falta zitzaizkidan egunak betetzea erabaki nuen, eta kitto. Ordutegia aldatuko nuen, ez baineukan Dennis ikusteko gogorik. Beste gutia hala-nola konponduko zelako esperantza nuen.

Lana bukatzeko astebete falta zitzaidan. Ion nire lehengusua, bere lagun Jakesekin etorri zen dendara bisitan. Une batez aurreko tabernako terrazara zerbait hartzera gonbidatu ninduen.

Eta bidean ustekabeen Dennisekin tupust egin genuen aurrez aurre. Bera hurbildu, eta non arraio ezkutatuta nenbilen galdetu zidan, ea zergaitik ez nion telefonoa hartzen. Estuasun hartan, Elene eta bien arteko eszena hura etorri zitzaidan burura, eta nik hotz eta motz honela esan nion:

–Kaixo, Dennis. Hau Ion da, nire lehengusua eta beste hau, berriz, Jakes, nire mutil-laguna –gerritik heldu eta muxu bat eman nion.

Hiru mutilen aurpegiak ikustekoak ziren, zein baino zeinenak harrituagoak!

–Mobila galdu dut, eta ordutegia aldatu dut Jakesekin gehiago egoteko –esan nion irribarre batekin.

Berak ez zuen ezer erantzun.

Agur esan, eta handik alde egitera zihoala:

–Ikusten baduzu, eskuminak eman Eleneri –esan nion.

Jakes ordudanik ahalegindu da pare bat aldiz nirekin ligatzen, baina honek ere jai du. Lagun bezala jarraitzen dugu eta elkar ikusten dugunean “cari” deitzen diogu elkarri barre artean.

“Ni ez naiz inoren printzesa. Eta ez dut nahi printzerik. Maite nauen eta dudan mutil bat besterik ez. Printzesa eta printzeak ipuinetarako utziko ditugu.”

Bershkako azken egunean, urrezko hizkitan  
“EZ NAIZ ZURE PRINTZESA”  
jartzen zuen  
Kamixeta grix hura erosi nuen.

Ez ilargirik, ez izarrik edo hondartza ederrik.  
Nahikoa dut moketa urdin iluna lurrean,  
larrialdietarako argia goian eta aurrean ez erre  
kartela.